

"MULTIABENTURA UDALEKUAK" JARDUERA-PROGRAMAN PARTE HARTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA-ORDENANTZA

1. artikulua.- Xedea- Zerga-egitatea

Prezio publiko honen xedea da Basauriko Udalak "Multiabentura udalekuak" programaren barruan garatu behar diren zerbitzuak ematea.

2. artikulua.-Ordaindu behar dutenak. Subjektu pasiboak

Prezio publiko hau ordaindu beharko dute udalekuetan parte hartzeko aukera duten pertsona fisikoek.

3. artikulua.- Kobrantsa. Sortzapena

Onartutakoen behin betiko zerrendak argitaratzeko Gazteria Sailak ezarri duen data baino lehen ordaindu beharko da prezio publiko hau.

4. artikulua.- Elementu kuantitatiboak

2018ko eta hurrengo ekitaldietarako Udalekuen prezio publikoa, aldaketarik ez badago, tarifa hauen arabera eskatuko da:

Prezioak	Lehenego txanda	Bigarren txanda
Parte-hartzaileko	95,00 €	105,00 €

5. artikulua.- Kudeaketa eta likidazioa

Prezio publiko honen kudeaketa eta likidazioa Gazteria Sailari dagozkio. Aipatutako ekintzen onuradun izan ahal izateko, aurretiaz horri dagokion zenbatekoa ordaindu beharko da.

Prezio publiko jarduera hasi baino lehen ordainduko da beti, eskatzaileen kontu korrontean dagokion zenbatekoa zordunduta, Gazteria Sailak adierazitako egunean, betiere plazen adjudikazioaren behin betiko argitalpena egin baino lehen.

Ordainketa ez bada egiten ordenantza honetan eta aplikatu beharreko gainerako xedapenean ezarritako modu eta epeetan, zerbitzuaren prestaziorik gabe utzi ahal izango zaio.

Foru Dekretuan xedatuta ez dagoen guztirako, bereziki zorra ordaintzeko lekuaren eta epeen araubideari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko

Araudian eta Basauriko Udalaren Zerga Ordenantza Nagusian aurrez ikusitakoa beteko da.

AZKEN XEDAPENA

Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.”